

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozein motatako bezeroei zuzenduko gara, baina batez ere fokua 3 bezero segmentutan jarriko dugu.

- **Ikastetxeak:** Lehen Hezkuntzako azken zikloan Lekeitioko kultura eta bizitza ezagutzeko erronkak egiten dira. Gure betaurrekoei esker Lekeitioko historia eta kultura modu interaktibo eta didaktikoan landuko lituzkete, honi esker ikasleen motibazioa eta esperientzia sustatuz.
- **Turismo bulegoak:** Bulegoetan gabezi batzuk ikusi ditugu, alde batetik antzinako argazki gutxi daudela eta bestetik herriari buruzko informazioa papelean ematen dela edota bisita gidatuetan. Gure produktuari esker bisitariak Lekeitio modu interaktibo eta jasangarrian ezagutzeko aukera eta esperientzia emango genioke.
- **Egoitza:** 3. adineko jendeak beraien oroitzapenak eskuragarri edukitzeko bide bat izan daitekela uste dugu. Oroitzapenak berreskuratu eta beraien bizipen zaharrak berpiztuz.

Hasiera batean, eskaintza Lekeition egingo dugu, denbora aurrera joan eta gure enpresaren harrera positiboa bada gure salmenta eremua zabaltzea ez dugu baztertzen, horretarako praktiketako jendea kontratatuz eta honekin gu bezalako gazteei aukera emanez.

